

eta zerbitzariak. Azken hori bidean geratuko da; afrikanerra, mendeku goseak adoretuta, ahulduta baina onik helduko da etxera.

Handik hilabete batzuetara, armada txiki baten laguntzarekin itzuliko da Jacobus namakuatarraren lurraldera, eta haiek guztiak akabatuko ditu, heldu, zahar zein ume. Bere eta bere aberrikideen aburuz, indigena batek gizon zuri bati egindako iraina odolarekin bakarrik ordain daiteke.

Historia eta fikzioa

XVII. mendeko izen bereko *esploratzailearen* oinarriturik dago Jacobus Coetzee, idazlearen urrutiko ahaidea hura, eta namakua jendearen lurraldera 1760an egindako espedizioaren inguruan afrikaner gobernadoreari hark emandako lekukotza du oinarri *The Narrative of Jacobus Coetzee*. Testigantza horren transkripzioa zein S. J. Coetzee editore eta historialariak –idazlearen aitak– Jacobusen lekukotzaren lehen argitalpenari idatzitako hitzaurrea biltzen ditu argitalpenak, lehenago azaldutako istorioarekin batera. Azken hori eta bi testu historikoak, ordea, ezin ezberdina dago. Batek Jacobusen ekintza deitoragarriak modu gordinean azaltzen ditu, eta beste biek, aldiz, apainduta azaltzen dituzte ekintza berberak: batean kolonialismoaren krudelkeria dena, beraz, besteetan zibilizazioaren garaipen moduan goraitpatzen da.

Baina hementxe dago kokxa: espedizioari buruzko istorioa zein S. J. Coetzeeren hitzaurrea fikziozkoak dira. 1760ko lekukotzaren transkripzioa da dokumentu guztietatik benetakoa den bakarra; benetakoa bai, baina ez dago horregatik fikzioaren trikimailuetatik aske. Hiru testuak bata bestearen atzetik irakurrita, agerian geratzen da zer eragin duen historiak edo, zehatzago esanda, historiografiak ikuspuntu jakin batzuk balioetsi eta datu fidagarri moduan sortzeari begira.

Kasu honetan, afrikaner nazionalismoaren indartzea eta afrikaner kulturaren gorentzea ahalbidetu zuen mundu ikuskera ofizialtzeko prozesua azalarazten du Jacobus Coetzeeren espedizioaren narrazio hirukoitzak, baita inplikazioa ere. Hortik *The Narrative of Jacobus Coetzee*-ri hasiera ematen dion aipua, Flauberten *Bouvard et Pecuchet* (1881) lan satirikotik harturik dagoena: «Garrantzitsua historiaren filosofia da». Hots, *filosofia* edo historia barruko legea ezartzen duen ikusmolde meta-historiko batek gidatzen du historiaren idazketa.

Azal maiztuak

Irati Majuelo

Izan zitekeen maitasun poema-liburu bat. Izan zitekeen etsipenari eginiko oda bat. Izan zitekeen naturaren irudikapen erromantiko bat. Baina ez da. Izan ere, galera baten ondotik irauten duenari eta dutenei idatzitako liburua da, eta ezinbestean azaleratzen dira bertan maitasuna zein etsipena, baina ezin esan Castillo Suarezek era konbentzionalean lantzen dituenik, ezta idazleak bere irauteari eskainitako basoan loratu diren sentimendu bakarrak direnik ere.

Poema-liburu honetan, emozio kontraesankorrez osatuta dago iraupenaren ekosistema: mina-plazera, maitasuna-abandonua, galera-aurkikuntza, ihesa-itzulera, desira-damua. Ekosistema baso heze eta basatietan garatzen da, naturako elementuekin gurutzatu. Idazleak hautu kontzientea egin du, ez

soilik sentimendu horiekin paisaia sinboliko-bukoliko soil bat ez sortzeko, baizik eta sinbolismo hori bere ingurune naturalean kokatzeko. Zeren eta izan, *Irautera* sinbolismo handiko liburua baita, baina Suarezek esanahi arketipikoetatik harago-



'Irautera'

Idazlea: Castillo Suarez.
Argitaletxea: Elkar.

Abiapuntu eraginkorra

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Izenburuak ez du gezurrik esaten: liburuxka honetan Marxen teoria politikoa azaltzen zaigu. Labor baina zehatz, agertzen da zer den langileak kontratatzea, lanaldia, enpresa, ekoiztea, gainbalioa, ekoizpen kostua, etekina edota greba.

Lehen inpresioak haur txikien liburuen estetika ekartzen du gogora. Eta okerreko irudipena da. Simplea izaten ahalegintzen bada ere, kontzeptu teorikoak azaltzeko obra bat da, bere konplexutasun ebidenteekin. Gainera, haurkutsuko estetikak ez dio mesederik egiten nerabeak erakartzeko.

Azalpenak emateko, praktikara ekartzen du teoria, ipuin baten bidez ulergarriago delakoan dena. Zehazki, Karlos izeneko aitona batek bere bilobei «egiaz gertatu zen

istorio bat» kontatzen die. Istorioren zehar goiko kontzeptuak agertzen doaz, eta bakoitza ia nahi gabeko pausaldi bihurtzen da, irakurlearen ulermenerako erronka. Gaian jantzitako bitartekaria beharke da ondoan, are gehiago haurrak badira irakurleak.

Ipuina eraginkorra da azalpenetan, eta bitartekaria lagun-abiapuntu polita izan daiteke haurra teoria politiko-ekonomikoetara hurbiltzeko.



'Karl Marxen kapitala'

Idazlea: Joan R. Riera. **Ilustratzailea:** Liliana Fortuny. **Itzultzailea:** Garazi Arrula Ruiz. **Argitaletxea:** Txalaparta.

ko bilaketa egiten du bere jaioterriko paisaia sentimentalean, espezie autoktonoak (iratzea, haritza, almitza) zein kolonizatzaileak (eukalipto, pinua, ailantoa) elkartzen diren lursailetan, gizakiek eta piztiek topo egiten duten norabide biko bideetan. Kontraesan horiek baliatzen ditu egia argitara ekartzeko: «Basoak ditut maite/ baina nahiago nuke su hartuko balute./ Ez dut maitasuna bilatzen,/ nahiko baitut urearekin./ alferrik da minaren funtsa/ beste norbaitengan bilatzea».

Galeraren ostean irauteak bere prozesua du, eta hori bildu asmo dute liburua lau atalek: *Txer-toak*, *Krainer hormak*, *Eraitsitako presak*, *Artzain elektrikoak*. Atalkako sailkapenak prozesu horretan gidatzen du irakurlea: hutsune bati adabakia jarri nahi izatetik, minari eutsi ostean kontentzio-hormak hautsi, eta ezinbestean irautera daraman indarra erakutsiz. Bere hitzetan ez dago, ordea, damurik eta etsipenik, errealtatearen begirada heldu bat baino: «Damuak ez gaitu zorigaitzekoagoa egiten». Ez dago norbere buruarekiko

errukirik, ez besteen erabakieki-ko herrarik. Zintzo eta zuzen mintzo dira poemak txikizioen ostean azal maiztuetan irauten duten orbain, hutsune eta emalzteke dirauten esporez.

Liburuak ez du, ordea, galeraz eta irauteaz soilik hitz egiten. Maitasun moldeez, bakardadearekin ditugun harremanez eta piztia bihurtzen diren gorputzez ere badiharduo Suarezek. Bakardadeari buruzko hausmarketak nabarmendu nahiko nituzke, liburu osoan zehar azaltzen baita hiruko gisa: zu, ni eta bakardadea. Bakardadeaz hitz egiteak baitakar besteari, joan denari, maiteminari, sexukideari buruz hitz egitea, ezin baita bakardadeaz hitz egin falta dena aipatu gabe. Idazleak berak argi uzten digu: «Iluntzen duenean/ beti behar izaten dugu norbait/ bakardadea bada ere».

Finean, poema-liburu osoa eta ederra ondu du Castillo Suarezek, indar handiko irudi eta ideiak biltzen dituen hasieratik bukaeraraino. Bere poesiak ere irautera jotzen baitu: «Nire poemak ez dira egundaino errenditzi-ikur izan».

Kaos estetiko

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero


Zergatik kezkatzen gara geure buruaren irudiaz? Zer nolako gorputzera dugun (eta duten), zer-nolako itxura eta usaina dugun (eta duten)? Dioteenez, guretzako aldarrikatzen dugun askatasunarekin eraikitzen ditugu besteentzako mugak...

Album ilustratu honek lagun diezaguke kontraesanak airearazten, zintzo jokatzeko gai bagara geure buruarekin eta parean eduki dugun irakur-kidearekin.

Istoria simplea da, lineala, anekdota bat erretratzen duena: Ogrok hitzordu bat eskatzen dio Sorginari, sare sozial baten bidez. Sorgina badoa, baina bidean topatzen duten adiskideek itxura hobetzeko aholkuak ematen dizkiote: zuzen ezazu konkorra, itxuratuz ezazu sudurra, emaiotzu ukitutxo bat zure alabre-illaje horri...

Hitzordu lekura iristean, ordea, ezustea gertatzen da, Ogrok ez baititu atsegin antzaldaketa horiek.

Eta orain galdera dator: nork jokatu du oker? Lagunek, itxura aldatzeko eskatzean? Ogrok, itxura aldatzea errefusatzean? Sorginak, besteen arabera itxuratu behar duela pentsatzean? Nork ez ditu estetikaren arabera-ko juzguak egiten? Zer esango diozu zure ondoko haurrari, zuk konplizten ez duzunetik?



'Polita'

Idazlea: Canizales. **Ilustratzailea:** Canizales. **Itzultzailea:** Ipar Alkain. **Argitaletxea:** Denonartean.